

Martxoko jangelako menuak

Hau da martxoan jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#).

Hauek dira alergia edo intolerantziadun bazkaldarren [menuak](#).



Tanta zozketa txartelaren banaketa

2023 urtean Orereta Ikastolari dagokio Kilometroak jaiaren antolatzailea. Egiten diren ekintzetako bat **Tanta zozketa** da.

Familia bakoitzeko ikasle zaharrenari, **Tanta txartel** bat banatuko zaio. Txartela erosten duenak 60.000 €-ko zozketan parte hartuko du eta bakoitzak 5 € balio du.

Norbaitek txartel gehiago nahiko balu, mesedez, **martxoaren 10a baino lehen** usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi. Kobrantza errezibo bidez egingo da martxoaren 16an.



Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat bada hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.

Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta parte hartzera animatzen zaituztegu.

Martxoak 15 -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

OHARRAK: Saioa, **Potxoenean** izango da arratsaldeko **18:30ean**.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusten da.



Ibilaldi neurtua

Urtero bezala, martxoak 12an ibilaldi neurtua antolatu da eta aurten Donostian izango da. Joateko interesa duzuenok bidali haurraren izen abizenak eta maila eskolakirola@udarregi.eus helbidera martxoak 7a baino lehen. Biler bat egingo da egun hortako informazioa emateko martxoaren 7an 16:45 ikastolako jangelan. [Hona hemen ibilaldi neurtuko informazioa eta ibilbidea.](#)



Gipuzkoako
Mendizale
Federazioa

Usurbilera etorri berrientzako ikastaroa

Herrira iritsi berri direnentzako Euskara ikastaroa doan eskaintzen du Udalak. Erroldatu berri direnei zuzendua. Hiztegia, esamoldeak, euskal kulturaren transmisioa... landuko da. Ahozkotasuna lantzea du ardatz.

Saiok Potxoenean izango dira, astearteetan, 18:15-19:45

Izena emateko: itzultzailea@usurbil.eus edo 943 37 19 99 (taldea bete bitartean egongo da izena emateko aukera).



Usurbilgo Udala

Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.



Ikasturte honetan, LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek formakuntza jaso ostean Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko du gurasoi eta talde eragilearen berri jasoko da. Azkenik, maiatzean, interesatu orok kezak plazaratzeko eta lantzeko aukera izango dugu.

Datak:

- **LH5eko** ikasleen formakuntza: **martxoak 27**
- **LH6ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 28**
- **DBH1ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 6**
- **Gurasoekin: Apirilak 25, 17:30tan, Udarregi Ikastolako jangelan.**
- **Bilera irekia:** Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro, **maiatzak 2, 17:00tan, Potxoenean.** Gonbidatuak Zarauzko guraso taldea: Gure aukera, guk 16.

Mugi gaitezen, batu gaitezen!

HAUR HEZKUNTZA

Haur Eskolako idazkaritzaren berrantolaketa

Udarregi ikastolako idazkaritzaren berrantolaketa berria egiten ari gara eta idazkaritza osotasunean (**0-16 urte**) eraikin gorrian (Gernika, 11) zentralizatuko da datorren asteleheneetik aurrera. Beraz, idazkaritzarekin harremanetan jartzeko, deitu 943.36.12.16 telefonora edo usurbil@ikastola.eus helbidera bidali mezua.



HH3ko familientzat oharra

Martxoak 7an, asteartea, **16:45ean** HH3ko familiei zuzendutako bilera pedagogikoa egingo dugu. Biler hori ondo antolatzeko, izena eman behar duzue [ondorengo loturan](#). Biler, zuen seme/alaben gelan izango da. Izena emateko azkeneko eguna martxoak 2.



DBH

Orientazio bilerak

Urtero bezala, ikasturte honetan ere, **DBH 4ko ORIENTAZIO BILERAK** gauzatuko ditugu. Zuei ere, antolaketa lanetan laguntzeko asmoz, aurrez bileren inguruko egutegia helarazten dizuegu.

DBH bukatu ondoren egin daitezkeen **ikasketa eta lanbide irtenbideei** buruzko bileren egutegia.



DATA	ORDUA	GAIA
Martxoak 6 (astelehena)	❖ 17:00etan (euskaraz)	➤ DBH bukatu eta ondoren egin daitezkeen ikasketa edo bestelako aukera desberdinei buruzko informazio orokorra.

Martxoak 7 (asteartea)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ ZUBIETAko Lanbide Heziketa Zikloak
Martxoak 8 (asteazkena)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz) ❖ 18:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ OTEITZA (Zarautz) (Batxilergoak eta Lanbide Heziketako zikloak) ➤ LASARTEKO Institutua (Batxilergoak)
Martxoak 9 (osteguna)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ STO TOMAS LIZEOA (Donostia) (Batxilergoak)

Bilera guztiak DBHko eraikinean gauzatuko dira.